



DEBAGOIENKO MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2021.01.26an EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

MAITE ANTON LENO

OÑATI

BOKALAK

GARAZI LARREA ZUMELAGA
UNAI ELKORO OIANGUREN
AINHOA CABERO GARCIA
MARIA UBARRETXENA CID
MAITANE MUÑOZ GOICOECHEA
ANDER GARAY ZABALETA
GORKA ARTOLA ALBERDI
AINHOA LETE ZABALETA
CRISTINA MARQUINA IGARZA
IZARO ELORZA ARREGI
ANIK ZUBIZARRETA ARTURO

ANTZUOLA
ARETXABALETA
ARETXABALETA
ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
BERGARA
OÑATI
OÑATI

ETORRI GABEAK

ARITZ MURUA ACHA
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA
EUGENIO OTSOA UGALDE

ARRASATE
ELGETA
ESKORIATZA
LEINTZ-GATZAGA

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

2021eko urtarrilaren 26an, 9:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Maite Anton Leno anderea, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren ohiko bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

Martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapen bigarrenen ezarritakoarekin bat etorrituz (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, COVID-19ri aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloko premiazko neurri osagarriak onartzen dituen, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen duena), Gobernu Juntaren ohiko bilkura hau bideokonferentziaren bidez egin da, JITSI MEET aplikazioa erabiliz.

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU 2020ko abenduaren 15ean egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

2.- ZERBITZU OROKORRAK

2.1.- 2021eko ordainsarien igoera eta Lanpostuen Zerrendaren hasierako onespena

2020/12/31n argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean 2021eko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legea.

Lege horrek, III. tituluko I. kapituluan, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuak arautzen ditu, eta, zehazki, 18. artikuluan, 2021eko ekitaldirako ordainsari-igoeren mugei heltzen die, eta honako hau jasotzen du:

“(....) Bi. 2021. urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak ezin izango dute ehuneko 0,9ko igoera baino handiagoa izan 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, bai langile kopuruari, bai antzinasunari dagokionez, alderaketaren bi aldietarako homogeneotasuna mantenduz. Gizarte-ekintzako gastuak, oro har, ezin izango dira handitu 2020koen aldean. Horri dagokionez, gizarte-ekintzako gastuak egindako kontraprestazioez bestelako onurak, osagarriak edo hobekuntzak direla jotzen da, sektore publikoaren zerbitzura dauden langile horien inguruabar pertsonalen ondoriozko premia jakin batzuk asetzea helburu dutenak.”

Artikulu honen arabera, eta Pertsonal Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. 2021ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Mankomunitateko langileen ordainsariak legeak baimentzen duen gehiena igotzea, hau da, % 0,9, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta.
2. Portzentaje berean igotzea dedikaziodun Juntakideen soldatak.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Bestalde, igoera hau jasotzen duen 2021eko Lanpostuen Zerrenda ere aurkeztu da.

Pertsonal Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- 2021eko Lanpostuen Zerrendari hasierako onespina ematea eta espedientea 15 egun baliodunez jendaurrean ikusgai uztea, eta behin betiko onartutzat jotzea, baldin eta denboraldi horretan ez bada inolako erreklamaziorik aurkezten.

2.2.- Foru Kontratazio Zentrala

- **Suteen eta intrusioaren aurkako sistemak mantentzeko kontratazio espedienteari atxikitzea**

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2011ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Kontratazioen Zentralak aurrera eramango duen eskuratze zentralizatuko sistemari atxikitzea erabaki zuen, horretarako Foru Aldundiarekin zegoen hitzarmena sinatuz.

Aipatu Zentralak, esparru-akordioaren prozedura bitartez, suteen eta intrusioaren aurkako sistemak mantentzeko kontratazio espedientea irekitzeko asmoa du.

Eta Mankomunitate honek ere zerbitzu hau behar duenez, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Suteen eta intrusioaren aurkako sistemak mantentzeko Gipuzkoako Kontratazioen Zentralak irekiko duen esparru-akordioaren espedienteari atxikitzea, 2011ko maiatzaren 18ko Gobernu Juntak onartutako hitzarmenean, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako eran eta baldintzetan.
2. Konpromisoa hartzea enpresa esleipendunari kontratu eratorria esleitzeko Foru Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere.

- **Komunikazio telefonikoen zerbitzua kontratatzeko espedienteari atxikitzea**

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2011ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Kontratazioen Zentralak aurrera eramango duen eskuratze zentralizatuko sistemari atxikitzea erabaki zuen, horretarako Foru Aldundiarekin zegoen hitzarmena sinatuz.

Aipatu Zentralak, esparru-akordioaren prozedura bitartez, komunikazio telefonikoen zerbitzua kontratatzeko espedientea irekitzeko asmoa du.

Eta Mankomunitate honek ere zerbitzu hau behar duenez, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Komunikazio telefonikoen zerbitzua kontratatzeko Gipuzkoako Kontratazioen Zentralak irekiko duen esparru-akordioaren espedienteari atxikitzea, 2011ko



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

maiatzaren 18ko Gobernu Juntak onartutako hitzarmenean, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako eran eta baldintzetan.

2. Konpromisoa hartzea enpresa esleipendunari kontratu eratorria esleitzeko Foru Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere.

2.3.- Mankomunitatearen dokumentazioa itzultzeko HORI HORI, S.A. enpresarekin sinatutako kontratuaren luzapena

Zegokion kontratazio prozedura jarraitu ondoren, 2020ko otsailaren 7an sinatu zuen Mankomunitateak HORI HORI, S.A. enpresarekin Mankomunitatearen dokumentazioa itzultzeko kontratua. Kontratu honetako hirugarren klausulan jasotzen da urtebeteko iraupena izango duela, 2020ko otsailaren 7tik aurrera, eta Mankomunitateak bi aldiz luzatu ahal izango duela, lehen aldiz urtebeterako, eta bigarren aldiz 6 hilabetetarako.

Izapidetutako espedientea ikusirik, eta idazkariaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Aipatu kontratua urtebetez luzatzea, hau da, 2022ko otsailaren 6ra arte.

2.4.- Mankomunitatearen lokalak eta instalazioak garbitzeko HEMEN GARBIKETAK, S.L. enpresarekin sinatutako kontratuaren luzapena

Zegokion kontratazio prozedura jarraitu ondoren, 2017ko martxoaren 20an sinatu zuen Mankomunitateak HEMEN GARBIKETAK, S.L. enpresarekin bere lokalak eta instalazioak garbitzeko kontratua. Kontratu honetako hirugarren klausulan jasotzen da lau urteko iraupena izango duela, sinatzen denetik aurrera, eta beste bi urtez luzatu ahal izango dela, bi aldeen adostasunez.

Izapidetutako espedientea ikusirik, eta idazkariaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Aipatu kontratua bi urtez luzatzea, hau da, 2023ko martxoaren 19ra arte.

2.5.- Hiltegiako instalazio, makina eta altzariak ZUBILLAGA HILTEGIA, S.L. enpresa publikoari errentan lagatzeko kontratua

Zegokion prozedura jarraitu ondoren, 2010eko abenduaren 31n likidatu zen Mankomunitatearen hiltegi zerbitzu publikoa, eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi zen jardunean Udalek hiltegi zerbitzua emateko sortutako merkataritza-sozietate berria.

Mankomunitateko Gobernu Juntak, 2010eko abenduaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen Oñatiko Zubillaga auzoko Osinurdi parajea kokaturiko hiltegiaren eraikina, bere lursail, instalazio, makina eta altzariekin ZUBILLAGA HILTEGIA, S.L. enpresa publiko berriari errentan lagatzea bost urtetarako abere-hiltegi zerbitzurako eta hortik eratorritako jarduera osagarrietarako erabiltzeko baldintzarekin, ondasun hauen kalifikazio juridikoa aldatu ondoren.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

2015eko abenduaren 15ean egindako bilkuran, Gobernu Juntak erabaki zuen beste bost urteetarako lagatzea errentan.

2020ko abenduaren 31n bost urteetako epea bukatzen zenez, aipatu enpresa publikoak urtea bukatu aurretik beste bost urteetarako errentamendu kontratua sinatzea eskatu zuen.

Mankomunitateko lehendakariak, 2020ko abenduaren 28ko presazko ebazpen bitartez, erabaki zuen 2016ko urtarrilaren 1ean sinatutako errentamendu-kontratua beste hilabete batez luzatzea, hau da, 2021eko urtarrilaren 31 arte, Mankomunitateko Gobernu Juntak urtarrileko bileran kontratu berriari buruzko erabakia har zezan.

Hau honela izanik, Gobernu Juntak, eskualde honetan abere-hiltegi zerbitzua mantentzearen interes publikoa kontuan izanda, eta izapidetutako espedientea ikusirik, aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Mankomunitateak Oñatiko Zubillaga auzoko Osinurdi parajearen dituen hiltegiaren eraikina, bere lursail, instalazio, makina eta altzariekin ZUBILLAGA HILTEGIA, S.L. enpresa publikoari errentan uztea beste bost urteetarako ondorengo klausulen arabera:

1.- Errentamenduaren helburua

Debagoieneko Mankomunitateak errentan lagatzen dio "ZUBILLAGA HILTEGIA, S.L." enpresa publikoari, eta honek hartu egiten dio kontratu honetan ezarritako baldintzetan, Oñatiko Zubillaga auzoko Osinurdi parajearen kokaturiko hiltegiaren eraikina, bere lursail, instalazio, makina eta altzariekin, abere-hiltegi zerbitzurako eta hortik eratorritako jarduera osagarrietarako erabiltzeko baldintzarekin.

Ekitaldi honetan maizterrari ematen zaizkio I. ERANSKINEAN zehazturiko ondasunak (kontratu honi atxikita dago).

2.- Errentamenduaren iraupena

Errentamendu-kontratu honen iraupena BOST URTEKOA izango da izenpetzen den egunetik aurrera.

Kontratu hau Hiri Errentamenduen Legean ezarritakoaren mende dago, etxebizitzaz bestelako erabilerarako errentamenduen iraupena finkatzeko itun-askatasunari dagokionez, eta beraz ez dago inolako luzapen-eskubideren mende.

Ondorioz, kontratu hau automatikoki iraungiko da aipaturiko indarraldiaren bukaeran, maizterrari inolako errekerimendurik egin beharrik gabe, eta errentan utzitako lokala maizterrak erabiltzen jarraitzeak ez du inola ere isilbidezko errentamendu-luzatzea inplikutzen. Denboraldi hori igarota, eta bi aldeek horrela nahi badute, beste errentamendu-kontratu bat hitzartu ahal izango dute.

Beraz, itundutako epea amaitzean, maizterra beharturik dago lokala hutsik uztera altzariak, tresnak eta izakinak bertatik atera eta giltzak errentatzaileari ematera. Itundutako epea amaitzean edo kontratua zeinahi arrazoiengatik



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

suntsiturik geratu ondoren, maizterra ez bada errentan hartutako lokaletik irteten, honek bertan igarotzen duen egun bakoitzeko kontratu-aldian egokituko zitzaionaren halako bi ordaindu beharko dio errentatzaileari.

Maizterrak nahi badu errentan hartutako lokala hustu hitzartutako epea amaitu baino lehen, errentatzaileari jakinarazi beharko dio kontratua behin betiko amaitutzat eman nahi duen eguna baino hogeita hamar egun lehenago gutxienez, ordura arte bere obligazio guztiak, ekonomikoak nahiz bestelakoak, bete beharko dituelarik.

3.- Errenta

Kontratu honen errenta urtean 19.000 €-koa izango da, eta errenta hori kontratu honen 5. klausulan ezarritako eran berrikusi eta eguneratuko da.

Errenta hori BEZarekin edo aplikatu beharreko beste edozein zerga edo arielekin gehituko da, hauek betiere maizterrari zordunduko zaizkio-eta.

4.- Errenta ordaintzeko era

Errenta urtero ordainduko da, urriaren 31 baino lehen. Kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da ezarritako errentaren ordainketan hilabete baino gehiago atzeratzea.

5.- Errenta berrikustea

Kontratuaren iraunaldiko bigarren urtetik aurrera, EAEko Kontsumo Prezioen Indizeak, Estatistika Institutu Nazionalak argitaratuak, aurreko urtearekiko izaten duen gorabeheraren arabera aldatuko da errenta urtero.

6.- Fidantza

Ekitaldi honetan maizterrak fidantza gisa 4.000 € emango dizkio errentatzaileari kontratu honen betebeharrengatik erantzuteko.

7.- Maizterraren betebeharrak

Deskribaturiko ondasunak abere-hiltegi zerbitzurako eta hortik eratorritako jarduera osagarrietarako soilik ematen dira errentan. Maizterrak ez balu baldintza hori beteko, kontratua suntsiarazita geratuko litzateke eta fidantza galduta, eta baldintza hau, bere garrantzi eta izaeragatik, kontratua suntsiarazteko baldintza esplizitua da, ondorio guztietarako.

Kontratu hau izenpetzean errentamendu-xede diren ondasunak maizterrari emantzat joko dira; maizterrak aitortzen du ezagutzen duela zein egoeratan dauden, eta horregatik ezingo dio Mankomunitateari erreklamaziorik egin.

Errentan emandako ondasunak baimendutako erabileren arabera erabiliko ditu maizterrak; beharturik dago egoera ezin hobean mantentzera, erabiltzaileek eragindako kalteen erantzule ere bera izango da, eta hartu zituenean zeuden egoera berean itzuli beharko ditu. Maizterrak ezingo du egin eraikinaren egitura alda dezakeen obrarik.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

Debekaturik geratzen da kontratu honen xede diren ondasunak guztiz edo partzialki azpierrean ematea.

Maizterraren kontura izango dira errentan emandako lokalaren jabetza zergapetzen duten zerga, tasa, kontribuzio eta abarrak. Atal honetan espresuki sartzan da Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.

Maizterraren kontura izango dira obra eta inbertsio guztiak, indarrean dagoen araudiak edozein unetan eskatzen dituenak barne, edo instalazioak aurrez ikusitako erabilerara egokitzeko beharrezkoak dituenak, edo ezinbestekotzat jotako hobekuntzak eta instalazioen funtzionamendu hobeko lagungarriak direnak, baita horietatik eratorritako zergak, tasak, etab. ere, baina horiek egiteko alde aurretik Mankomunitatearen berariazko baimena lortu beharko da, eta azkenean honen jabetzakoak izango dira. Arau horretatik kanpo geratzen dira maizterrak jarritako altzari edo objektuak, errentamendua amaitzean erretira daitezkeenak, betiere inolako kalte edo hondaketarik eragin gabe errentan emandako instalazioetan.

Mankomunitatearen esku geratuko da errentan emandako ondasunen kontserbazio-egoera une oro ikuskatzeko ahalmena. Kontserbazio egokirik eza aski arrazoi izango da kontratua suntsiarazteko.

Maizterraren kontura izango dira errentan emandako lokalaren barruan jarduera egitearen ondoriozko gastuak, hor sartuta, izaera mugatzaile gabe, lokalerako hornigaien kontratazioa, ustiatzeko behar diren kontsumoak (energia elektrikoa, ura, gasa, telefonoa, etab.)

8.- Erantzukizunak eta aseguruak

Maizterraren betebeharra izango da errentan emandako instalazioetan egiten dituen eragiketen ondorioz hirugarrenengoei eta Mankomunitateari berari eragiten zaizkien kalte guztiak ordaintzea.

Maizterrak Mankomunitateari ordainduko dio honek, jabea den aldetik, errentan emandako ondasunen arriskua estaltzeko kontraturiko kalte-aseguruaren sariaren zenbatekoa.

Bestalde, erantzukizun zibileko poliza bat egin behar du maizterrak, errentan hartutako instalazioetan garaturiko jardueraren ondorioz hirugarrenengoei eragiten zaizkien kalteentzako aski estaldura izango duena, baita bere arrisku guztiak estaltzeko beharrezko beste poliza guztiak ere (ustiapenerako, izakinatarako, negozioa eteteko... aseguruak).

Maizterrak indarrean mantendu behar ditu aipaturiko aseguruak errentamenduaren iraunaldi osoan, urtero ordainduz aseguru-etxeari dagozkion sariak.

Maizterra izango da beren jarduera eta negozioaren zuzeneko edo zeharkako ondorioz hirugarren pertsonen edo gauzen eragiten zaizkien kalteen erantzulea zuzenean eta eskusiboki, erantzunbehar orotatik salbuetsiz Mankomunitatea.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

9.- Baimenak eta lizentziak

Maizterrak bere kontura soilik lortu behar ditu dagozkion obra-baimenak, baita bere jarduera hasteko eta garatzeko berariazko baimenak ere.

Maizterrak zenbait jarduera Mankomunitatearen berariazko adostasunez egiteak ez du esan nahi Mankomunitateak inolako bermerik ematen dionik beharrezko administrazio-baimen edo lizentziak benetan lortzeari buruz. Beraz, maizterrak ezingo dio inolako erreklamaziorik egin Mankomunitateari baimen horiek ukatu edota gero baliogabetzen badizkiote.

10.- Kontratuaren suntsitzeko arrazoiak

Indarrean dagoen araudian ezarritakoaren kalterik gabe, kontratua suntsitzeko arrazoiak izango dira honako hauek:

- Bi aldeen arteko adostasuna.
- Hitzarturiko epea amaitzea.
- Errentan itundutako eran eta epean ez ordaintzea fidantza edo/eta maizterrari dagokion beste edozein betebeharraren ekonomiko.
- Kontratu honetan ezarritakoaz bestelako jarduera baterako erabiltzea lokala.
- Jardueraren prestazioa hogeita hamar egun baino gehiagoz etetea edota prestazio hori bertan behera uztea, ezinbesteko kasuetan edota Mankomunitatearen baimen idatziarekin izan ezik.
- Aldez aurretik eta idatziz Mankomunitateak baimendu gabeko obrak egitea lokalean.
- Zorpekoak izatea aseguruaren ordainketan edota horiek estalitako ondasunen azpibalarazioa.
- Indarrean dagoen araudiak jarduera garatzeko une bakoitzean eskatzen dituen baimenak ez izatea.
- Errentan hartutako ondasunen kontserbazio egokirik eza.

3.- INGURUMENA

3.1.- Epeleko zabortegiko lur gaineko uren, lurpeko uren eta lixibiatuen, eta Bergarako eta Arrasateko San Balerio garajeko isurketa uren laginak jaso, landako neurketak egin eta laborategiko analisiak egiteko zerbitzua emateko URIKER, S.L. enpresarekin sinatutako kontratuaren luzapena

Zegokion kontratazio prozedura jarraitu ondoren, 2019ko martxoaren 26an sinatu zuen Mankomunitateak URIKER, S.L. enpresarekin Epeleko zabortegiko lur gaineko uren eta lixibiatuen, eta Bergarako eta Arrasateko San Balerio garajeko isurketa uren laginak jaso, landako neurketak egin eta laborategiko analisiak egiteko kontratua. Kontratu honetako hirugarren klausulan jasotzen da urtebeteko iraupena izango duela, 2019ko apirilaren 1etik aurrera, eta Mankomunitateak urtero luzatu ahal izango duela, gehienez ere bost urte bete arte.

Izapidetutako espedientea ikusirik, eta Ingurumen Zerbitzuko arduradunaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

- Aipatu kontratua beste urtebetez luzatzea, hau da, 2022ko martxoaren 31 arte.

3.2.- Erabilitako arropa eta objektu berrerabilgarri txikiak aparte biltzeko, kudeatzeko eta edukiontziak garbitu eta mantentzeko EMAUS GIPUZKOA, S.L.U. gizarteratze enpresarekin sinatutako kontratuaren luzapena

Zegokion kontratazio prozedura jarraitu ondoren, 2018ko martxoaren 19an sinatu zuen Mankomunitateak EMAUS GIPUZKOA, S.L.U. enpresarekin erabilitako arropa eta objektu berrerabilgarri txikiak aparte biltzeko, jasotako materialak kudeatzeko eta edukiontziak garbitu eta mantentzeko kontratua. Kontratu honetako hirugarren klausulan jasotzen da hiru urteko iraupena izango duela, izenpetzen den momentutik aurrera, eta bi aldeen adostasunez gehienez ere beste bi urtez luzatu ahal izango dela.

Izapidetutako espedientea ikusirik, eta Ingurumen Zerbitzuko arduradunaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Aipatu kontratua bi urtez luzatzea, hau da, 2023ko martxoaren 18ra arte.

Une honetan Maria Ubarretxena sartu da bileran.

4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

4.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa

- J.M.B. (Eroso); moduluz aldatzeko eskaera

J.M.B. ekintzaileak 2020ko uztailetik Arrasateko 1-ZM zerbitzu modulua erabiltzen du, baina bere jarduerarako kotxe elektriko txiki bat erosi duenez, Arrasateko industri modulu batera aldatzea eskatu du.

Eskatzen duen industri modulu libre dagoenez, Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengo ERABAKI DU:

- J.M. aurkeztutako eskaera onartzea eta otsailaren 1etik aurrera aipatu ekintzaileak gaur egun erabiltzen duen 1-ZM modulua 6-IM moduluagatik aldatzea.
- Luzapen bat; J.J.I.Y. (Pruna Capital SLU)

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudiak 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengo ERABAKI DU:



DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

- Beste urtebetez, hau da, 2022ko urtarrilaren 31 arte, luzatzea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 3-ZM zerbitzu modulua erabiltzeko baimena, J.J.I.Y. jaunari emana, Gobernu Juntaren 2017ko urtarrilaren 17ko erabaki bitartez.
- N.B.B. (Hika Basque Brand); fidantza bat bueltatzea

Enpresa Ekintzetarako Zentroaren modulu bat erabiltzeko emandako baimena dela eta aurkezturiko fidantza bueltatzeko espedientea ikusita.

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudiak 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak aho batez ondorengoa ERABAKI DU:

- N.B.B. ekintzaileari bere egunean jarritako 408,96 €-ko fidantza bueltatzea.

4.2.- Debagoieneko Turismo Informazio eta Interpretazio Zentroa jartzeko eta Santutegiko bisita gidatuak egiteko Frantziskotarrekin lankidetzaz hitzarmena

Debagoieneko Mankomunitatearen estatutuen 7. artikuluan, bere xedeen artean, Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentziaren barnean, besteak beste, ondorengoa jasotzen da: *“Mankomunitateko udalerrien interes eta eremuko turismo-jarduerari buruzko informazioa eta sustapena”*.

2005. urtean Arantzazuko Santutegiko Frantziskotarrekin zegokion lagapen hitzarmena sinatu ondoren, Debagoieneko Mankomunitateak Arantzazuko Santutegian ireki zuen bere Debagoieneko Informazio eta Interpretazio Zentroa.

Zentro honen helburua bisitariari Debagoiena eskualdeko baliabide eta zerbitzu turistikoaren informazioa eta orientazioa eskaintzea da, eskualdeko baliabide historiko, artistiko, kultural, naturalen interpretazioa bultzatuz.

Gainera, Arantzazuko Santutegia eskualdeko kultur ondareko elementurik adierazgarriena da eta une honetan, bisitari gehien jasotzen dituen. Debagoieneko Turismo Informazio Zentrotik Santutegiko bisita gidatuak modu antolatuta batetan, ordutegi zehatz batzuekin, bideratzeko aukera ezin hobea da, eta 2006. urtetik Mankomunitatea horretan ari da, Santutegiko Frantziskotarrekin beste hitzarmen bat sinatu zuelarik.

Orain, bi hitzarmen hauek Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea egokitzea komeni da, bere zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betez.

Hau honela izanik, Gobernu Juntak, Garapen Batzordearen proposamena jarraituz, aho batez ZERA ERABAKI DU:



DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

- Debagoieneko Turismo Informazio eta Interpretazio Zentroa jartzeko eta Santutegiko bisita gidatuak egiteko Arantzazuko Santutegiko Frantziskotarrekin lankidetzaz hitzarmena sinatzea, ondorengo klausulen arabera:

Lokalaren lagapena

1. Arantzazu Santutegiko Frantziskotar Anaideak dohainik utziko dio Debagoieneko Mankomunitateari ondoren zehaztutako lokalaren erabilera, bertan

Debagoieneko Informazio eta Interpretazio Zentroa jartzeko.

Utzitako lokala:

Arantzazuko Santutegiaren aurrealdean dagoen eraikuntzan 86,6 m²-ko azalera

duen lokala, hitzarmen honi erantsitako planoan zehazten dena.

2.- Debagoieneko Mankomunitateak lagatako lokala erabiltzeko behar dituen altzariak eta ekipamendua jarriko ditu.

3.- Debagoieneko Mankomunitatearen kontura izango dira utzitako lokalaren ur, argindar, telefono, etabarren gastuak.

4.- Debagoieneko Mankomunitateak baimendutako erabileraren arabera erabiliko

du lagatako lokala, eta beharturik dago egoera ezin hobean mantentzera bere kontura eginez beharrezko konponketak, erabiltzaileek egindako kalteen erantzule ere bera izango da, eta lagapena bukatzean hartu zuenean bezalaxe itzuli beharko du lokala.

Debagoieneko Mankomunitateak lokalaren egitura aldatu nahi badu, Arantzazuko Frantziskotarren baimena beharko du.

5.- Debagoieneko Mankomunitatea izango da bere jardueraren ondorioz hirugarren pertsonari edo gauzei eragiten zaizkien kalteen erantzule. Edozein motatako ekintza edo ez egiteren ondorioz lokalaren barruan gerta daitezkeen kalte materialen edo pertsonalen erantzukizunik ez du bere gain hartuko Frantziskotar Anaideak, ez zuzenean ez subsidiarioki. Debagoieneko Mankomunitateak dagokion erantzukizun zibileko aseguruia izan beharko du.

6.- Lagatako lokala dagoen eraikineko elementu komunetan egin beharreko mantentze-lanen kostua eraikineko erabiltzaile guztien artean banatuko da, Debagoieneko Mankomunitateak ondorengo portzentaia ordaindu beharko duen artean: %39,01a.

Bisita gidatuak

7.- Debagoieneko Mankomunitateak, berak jarritako pertsonalarekin, Arantzazuko Santutegiko bisita gidatuak egingo ditu.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

8.- Debagoieneko Mankomunitateak 2021. urtean zehar egin beharreko bisita gidatuen eskaintza honela antolatuko da:

- Aste-bukaeretan, jai egunetan eta zubietan
- Aste Santuetan eta udan (ekainaren 1etik irailaren 30era) goiz eta arratsaldez
- Urtean zehar gainontzeko egunetan aurrez eskatutako bisitak.

9.- Bisita gidatuak garatzeko guneak egokitzea eta garbitzea Frantziskotarren ardura izango da.

10.- Bisita gidatuen guneetako argindar eta mantentze gastuei aurre egiteko Debagoieneko Mankomunitateak Arantzazuko Frantziskotar Anaideari bisita gidatuak egiteagatik kobratutako tasen kopuruaren %15a ordainduko dio.

11.- Bisita gidatu hauek egiteagatik tasa Debagoieneko Mankomunitateak finkatu eta kobratuko du, ateratako etekinak zerbitzu hau mantentzeko eta hobetzeko erabiliz.

12.- Hitzarmen honen jarraipenaz arduratuko den Lan Taldea Arantzazuko Frantziskotar Anaidearen eta Debagoieneko Mankomunitateko Turismo Saileko ordezkariak osatuko dute eta urtea amaitu baino lehen hitzarmenaren garapenaren balorazioa egingo dute.

13.- Lankidetzaz Hitzarmen honen gehienezko iraupena lau urtekoa izango da, urtero automatikoki luzatuko delarik urte bakoitza bukatu baino hiru hilabete lehenago aldeetako batek kontraktorik adierazten ez badu.

Gehienezko 4 urteko epe hori amaitu aurreko edozein unetan, bi aldeek aho batez adostu ahal izango dute hitzarmen hau beste lau urtez luzatzea.

14.- Lankidetzaz Hitzarmen honetan jasotako konpromiso eta betebeharrak ez betetzeak Hitzarmena suntsitzea ekarriko luke.

15.- Hitzarmen hau aldatzeko, bi aldeek adostasuna beharko da.

Une honetan Maitane Muñoz sartu da bileran.

5.- LEHENDAKARITZA

5.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

20/81.- - ASIER ETXANIZen ordezkapena egiteko LEIRE DIAZ DE GUEREÑU ECHAVARRIA izendatzea bitarteko funtzionario, 2020ko abenduaren 3tik 24ra arte. Hileko 2.797,94 €ko ordainsari gordina emango zaio, honela banatuta:



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

- Soldata: 1000,45 €. (A2)
- Lanpostu-mailako osagarria: 427,95 €. (18)
- Berariazko osagarria: 1.369,54 €.

20/82.- 20/77 ebazpen bitartez onartutako Epaimahai Kalifikatzailearen ondorengo aldaketa onartzea:

Esaten duenean:

- Mikel Manjón de Arriba, HAEEren ordezkaria.

Esan behar du:

- Jesús María López García, HAEEren ordezkaria.

20/83.- Manex Larrinaga langilearen eskaera onartzea. Beraz, 2021eko abenduaren 31 arte bere lanaldiaren heren bateko murrizketarekin jarraituko du.

20/84.- Danel Goikolea langileari euskarazko C2 mailako matrikula ordaintzea.

Ikastarora joateko orduak langileak jartzea. Ikastaroa lanorduz kanpo egitea. Orduak ez dira inolaz ere aparteko ordutzat joko. Maila dagokiona baino bi maila altuagoa denez, orduak langilearen kontura izatea. Dagokion maila denean, orduak Mankomunitatearen kontura. Maila bat handiagoa denean, orduen %50 Mankomunitatearen kontura.

Asistentzia %80ra iristen ez denean, eta aprobetxamendua justifikatzen ez denean, Mankomunitateak neurriak hartu ahal izango ditu (matrikularen zenbatekoa itzultzea).

20/85.- Desestimar el citado recurso de alzada, en base a la siguiente motivación:

1. En primer lugar, se ha de aclarar que, tal y como se recoge en los antecedentes de esta Resolución, quien acuerda desestimar su reclamación es el Tribunal Calificador, en base al informe de su asesora (que lo hace suyo), no la asesora.
2. En cuanto al **supuesto 1**, *alega el reclamante que en su examen se justifica el por qué del itinerario de su elección o las características que lo convierten en los recursos más adecuados a la demanda definida.*

Ahora bien, en el indicador “Conoce e incluye en el itinerario el patrimonio histórico-artístico-cultural de Debagoiena” incluido en el aspecto a valorar “Conocimientos sobre el temario”, al que se refiere el recurso, en el que el recurrente ha obtenido una puntuación de 1,3 sobre 2, se insiste en que se hace referencia sólo a 2 recursos (Santuario de Aránzazu y Parque Natural de Aratz-Aitzgorri) y dos localidades (Oñati y Bergara) sin profundizar en el valor y las características del patrimonio histórico-artístico, cultural y natural, cuando en el enunciado de este supuesto se especifica. “Pon en valor la oferta turística de Debagoiena, incluyendo en el itinerario diferentes productos, así como el patrimonio histórico artístico, cultural y natural de la comarca”.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Además, se ha de señalar que se incluyen visitas “típicas”. No se hace referencia a ningún tipo de visita adaptada que, por citar algún ejemplo, aborde las visitas desde un punto de vista más emocional (niñez, padres..) o romántico (fin de semana romántico). Ejemplo: una cena “especial” en Aránzazu o una visita guiada por Oñati que les hable de los orígenes de su ama

3. En cuanto al **supuesto 2**, alega el reclamante que en su respuesta de examen se referenciaron cuatro modalidades de alojamientos rurales y no sólo dos.

Ahora bien, se citan 4 modalidades, pero no se trata sólo de citar, se han de explicar las distintas modalidades, tal y como se recoge en el enunciado del supuesto, que dice así: “Explica las diferentes modalidades de alojamiento turístico en el medio rural, asesorando sobre su conveniencia”.

20/86.- Lehenengoa.- Onartzea Mankomunitate honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kap.	Izena	Euroak
6	INBERTSIO ERREALAK	60.000,00
GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA		60.000,00

SARRERAK

Kap.	Izena	Euroak
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	60.000,00
FINANTZAKETA GUZTIRA		60.000,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailtza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Mankomunitatearen batzarrari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

20/87.- 20/27 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HIRUREGUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI MILA EHUN ETA LAUROGEITA HAMABOST EURO ETA LAUROGEITA ZAZPI ZENTIMO (357.195,87 €).

20/88.- 20/82 ebazpen bitartez aldatutako Epaimahai Kalifikatzailearen HAEEn ordezkari titularra berriro aldatzea. Honako hau izango da:

- M^a JESÚS ITURRALDE ARRIAGA.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

20/89.- 20/28 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira LAU MILA BEDERATZIEHUN ETA HIRUROGEITA HEMERETZI EURO ETA HAMABOST ZENTIMO (4.979,15 €).

20/90.- Mankomunitateak Oñatiko Zubillaga auzoko Osinurdirin parajearen dituen hiltegiaren eraikina, bere lursail, instalazio, makina eta altzariekin ZUBILLAGA HILTEGIA, S.L. enpresa publikoari uzteko 2016ko urtarrilaren 1ean sinatutako errentamendu-kontratua beste hilabete batez luzatzea, hau da, 2021eko urtarrilaren 31 arte, Mankomunitateko Gobernu Juntak urtarrileko bileran kontratu berriari buruzko erabakia har dezan.

20/91.- 20/29 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira EHUN ETA HOGEITA ZAZPI MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMABOST EURO ETA BERROGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (127.375,57 €).

20/92.- 1.- Erabilitako sukaldeko olioia kudeatu eta biltzeko kontratua RAFRINOR, S.L. enpresari esleitzea bilketa-puntu bakoitzeko 0 €-ko prezioan. Bildutako olioia RAFRINOR, S.L. enpresarentzat izango da.

2.- Esleipen honen aurka kontratazioaren alorreko errekurtsio berezia jar daitekeenez, formalizazioa ezingo da burutu esleipenaren jakinarazpena lizitatzailerei bidali eta hamabost egun baliodun igaro aurretik.

3.- Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 62. artikulua betez, Maddi Altuna Odriozola, Ingurumen Zerbitzuko arduradun teknikoa, izendatzea kontratu honen arduradun.

4.- Enpresa esleipendunak adierazitakoaren arabera, kontratu honen xede diren lanetan arituko diren langileei Haragi-industriaren sektoreko Estatuko hitzarmen kolektiboa aplikatuko zaie.

20/93.- 2020ko abenduko nomina arrunta onartzea ondorengo laburpenaz:

Langileen ordainsariak	Soldata	Gizarte segurantzak	Elkarkidetzak	Km	Atxikipenak	Likidoa
Karguak	3.060,00 €	1.156,70 €	0,00 €			
Funtzionarioak	61.779,93 €	12.780,74 €	1.736,76 €	22,62 €		
Interinoak	19.470,88 €	6.016,14 €	230,31 €	304,50 €		
Laboralak	49.740,11 €	18.542,18 €	1.021,74 €			
Guztira	134.050,92 €	38.495,76 €	2.988,81 €	327,12 €	35.451,89 €	98.926,15 €

20/94.- 20/30 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BERROGEITA HAMAZORTZI MILA ETA LAUROGEITA ZORTZI EURO ETA BERROGEI ZENTIMO (58.088,40 €).

20/95.- 20/31 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BERROGEITA HAMAIIKA MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEI EURO ETA LAUROGEITA ZAZPI ZENTIMO (51.880,87 €).

21/01.- 20/32 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI MILA ZAZPIEHUN ETA HOGEITA HIRU EURO ETA LAUROGEITA HAMALAU ZENTIMO (272.723,94 €).



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

21/02.- Mankomunitate honek 2020ko urtarrilaren 21ean ALQUI-ENVAS, S.L. enpresarekin sinatutako 60 litroko poltsa konpostagarriz hornitzeko kontratua urtebetez luzatzea, hau da, 2022ko urtarrilaren 20ra arte.

21/03.- Mankomunitate honek 2020ko urtarrilaren 21ean ID WASTE, S.L. enpresarekin sinatutako 10, 40 eta 120 litroko poltsa konpostagarriz hornitzeko kontratua urtebetez luzatzea, hau da, 2022ko urtarrilaren 20ra arte.

21/04.- 1.- Acceder a la solicitud de exhibición y obtención de copias de la documentación que integra la oferta técnica de la empresa RAFRINOR, S.L.

2.- Denegar el acceso a la documentación justificativa de la viabilidad de la oferta de RAFRINOR, S.L., en base a las razones expuestas con anterioridad.

Gobernu Juntako kideen legezko gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin premiazkoztat jo ondoren, gai-zerrendan sartu gabeko ondorengo puntua aztertzeari ekin zaio.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, hondakin handiei buruzkoa

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri du "Debagoieneko Mankomunitateko lehendakariaren 20/10/29ko erabakiaren aurka, Kontsortzioaren Batzarrak egindako errekerimenduari uko egiten diona". (3/2021 prozedura arrunta). Errekerimendu horretan Mankomunitateari hilabeteko epea ematen zaio bere lurralde-eremuan biltzen diren hondakin handiak Kontsortzioari entregatzen hasteko.

Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3 zenbakiko Epaitegiak Mankomunitateari eskatu dio dagokion administrazio-espeditentea bidaltzeko.

Aipatutako espeditentea ikusirik eta kontuan hartuz Mankomunitate honen betebeharra dela bere ondasun eta eskubideak babesteko beharrezkoak diren legezko ekintzak gauzatzea, Gobernu Juntak aho batez honako hau **ERABAKI DU**:

1.- Debagoieneko Mankomunitatea 3/2021 prozedura arruntean agertzea, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3 zenbakiko Epaitegian aurkeztua.

2.- Mankomunitate honen interesen defentsa aipatu administrazioarekiko auzi errekurtsoan EKAIN taldeko JUAN LANDA MENDIBE abokatuari agintzea eta MARISA LINARES FARIAS izendatzea prokuradore.

3.- Administrazioarekiko Auzien Donostiako 3. Epaitegira dagokion administrazio-espeditentea bidaltzea emandako epean.

6.- GALDE-ERREGUAK

Ez dago galde-erregurik.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 10:30etan, bukatutzat eman da bilkura.

LEHENDAKARIA

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA